

TREBAKUNTZA 2015-09: Puntuazioa I

OHARRA: *izartxoaz eta letra etzanez idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.*

OHIKO AKATSAK

1. **Garai batean, administrazio munduan erabat euskaraz idatziak zeuden dokumentuak oso urriak ziren, zenbait akta eta ordenantza, udalen arteko gutun batzuk eta abar. Gaur egungo aukera ordea, askoz zabalagoa da.*
2. * *Hauxe izan zen zinegotziaren erantzuna: “gure alderdiak ez du mozio hau bere horretan onartuko”.*
3. * *Zuzendari jauna,*
Gutun honen bidez, lehengoan esandako...
4. * *Bulegorako materiala erosi behar dugu: boligrafoak, orriak, grapagailuak*
5. * *Noiz etorriko da alkatea?. Bihar goizean.*

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

PUNTUA:

Puntuak esaldiaren azkena markatzen du. Pausa osoa adierazten du. Honako kasuetan erabiltzen da:

- **Zentzu osoa duen periodoaren bukaeran.** Paragrafoaren amaiera markatzen duenean, puntu eta aparte egiten da.

Ad.: Unibertsitateko administrazio-langileen artean euskara erabiltzen duten euskaldunek ere, askotan, ez dute inprimakiak ere euskaraz betetzeko ohiturarik.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99

Denok gaude ezjakin samar arlo honetan. Ez dago, beraz, argudio sakonen bila ibili beharrik esparru honetara erabilera hedatzeko premia larria dagoela justifikatzeko.

- **Laburduretan:** ezk., esk. eta abar. Baina ez kontzeptu, magnitude, unitateak eta abar adierazteko jartzen diren ikurretan (ikus laburduren fitxa): m, kg...

- **Zenbakien ondoren,** "-garren"-en orde.

Ad.: Iturribide kaleko 6.ean dago Kultur Etxea.

- **Etendura puntuan ondoren, ez idatzi punturik:**

Ad.: Hauek dira gure diru-iturri nagusiak: Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Aldundia, enpresa pribatuak...

BI PUNTUAK:

Bi puntuak ere pausaldi luzea adierazten dute. Honako kasuetan erabiltzen da, batik bat:

- **Ondorengoa aurrekoaren argibide edo adibide dela adierazteko.**

Ad.: Bazkide berriei datuak eskatzen zaizkie aldizkaria jasotzeko: izen-abizenak, helbidea, NAN zenbakia...

- **Norbaiten edo nonbaiteko hitzak bere horretan testura ekartzen direnean. Kasu honetan, larriz idatzi behar da esaldiaren hasiera.**

Ad.: Honela dio araudiak: "Ikaslearen orde besterik egingo balu azterketa, ikasle hori ezgai izango litzateke asignatura ebaluatzean".

- **Orduetan.**

Ad.: 1. mailako ikasleentzako ordutegi berria hau da: 08:15etik 14:15 arte.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behe
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99

Beraz:

1. Garai batean, administrazio munduan erabat euskaraz idatziak zeuden dokumentuak oso urriak ziren; zenbait akta eta ordenantza, udalen arteko gutun batzuk eta abar. Gaur egungo aukera, ordea, askoz zabalagoa da.
2. Hauxe izan zen zinegotziaren erantzuna: “Gure alderdiak ez du mozio hau bere horretan onartuko”.
3. Zuzendari jauna:
Gutun honen bidez, lehengoan esandako...
4. Bulegorako materiala erosi behar dugu: boligrafoak, orriak, grapagailuak...
5. Noiz etorriko da alkatea? Bihar goizean.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin:

- Telefonoz: 94-6279195 (Ibon)
- Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Ibon)

Hurrengora arte!

Udaleri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99